BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1170

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematen diona, Galdakaoko udalerrian (Bizkaia), lehergaiak fabrikatzeko.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 21ean, Rafael López-Sors González jaunak eta José Miguel Murgui García jaunak, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zioten, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Galdakaoko udalerrian (Bizkaia) lehergaiak fabrikatzeko. Eskaerarekin batera proiektuak Galdakaoko hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko 2005eko abenduaren 7ko udal-txostena bidali du sustatzaileak, eta ondorengo agiri teknikoak:

- Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).
- Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. enpresak jardueraraako 1998ko abenduaren 28ko baimena zuen, besteak beste. Baimena lehergaietarako haste-sistemak fabrikatzeko eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: atmosferan kutsadura sor dezakeen jardueraren baimena 23 isurtze-fokutarako; hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, 2006ko uztailaren 27koa, eta industria-hondakin geldoena, 2005eko irailaren 21ekoa; lehergaiak eta produktu leherkorrak suntsitzeko instalazioaren eta prozeduren baimenak, eta ondorengo zabaltzeak eta berritzeak, hondakinen arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

Beranduago, proiektuak Galdakaoko hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko udal-txostena bidali zen, 2007ko irailaren 6an.

2007ko maiatzaren 19an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Galdakaoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Maxamcorp enpresari egin zitzaien kontsulta.

2007ko martxoaren 5ean, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko uztailaren 16an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia

Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Galdakaoko Udalari, Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetzari eta Maxamcorp, S.A.V. enpresari.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean den legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira. Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak ekoizteko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hori zuzentzeari dagozkionak. Era berean, eskumeneko beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek txostenak eginez egindako parte-hartzea egiaztatu da espedientean.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresari dagokion

ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Galdakaoko Udalaren, Osasun Sailaren eta Maxamcorp enpresaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak. Bereziki Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukia hartu da kontuan: solido ez-organiko bereziei buruzko «Reference Document on Best Available Techniques for de Production of Speciality Inorganic Chemicals», 2007ko abuztukoa; eta biltegiratzeen isuriei buruzko «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage» BREF agiria, 2006ko uztailekoa. Gainera, arloko araudiei dagokienez, kasu honetan urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua, zenbait jarduera eta instalaziotan disolbatzaileak erabiltzean sortzen diren konposatu organiko lurrunkorren isuriak murriztekoa, aplikatu behar da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Galdakaoko udalerriko (Bizkaia) Zuazo auzoko z./g.an –48960– eta IFK: B-48801955 zenbakia duen Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea lehergaiak fabrikatzeko, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 4.6 kategorian jasota dago, «Lehergailuak fabrikatzeko instalazio kimikoak» izenburupean.

Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresaren instalazioa Galdakaoko udalerrian (Bizkaia) dago, eta 294.241 m^2-ko azalera okupatzen du.

Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresaren jarduera haste-sistemak fabrikatzea da, hots, lehergai hasarazleak, atzerapen-oreak, pilulak, konexio-haria,

detonagailu elektrikoak eta ez-elektrikoak, kordoi detonatzailea, metxa motela eta biderkatzaileak. Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresaren ekoizte-ahalmena 1.079,8 t-koa da.

Fabrikazio-prozesuak hauek dira:

1.– Lehergai hasarazleen fabrikazioa: ingurune urtsuan lortzen dira, berun nitratoa, azido nitrikoa eta azido sulfurikoa bezalako konposatuen arteko ioi-elkartrukearen erreakzioz, hots, euren artean erreakzionatzean konposatu horien prezipitazioa sortzen dute, eta berun trinitrorresorzinatoa eta berun nitruroa (azida) osatzen dute.

2.– Atzerapen-oreen fabrikazioa: osagaiak proportzio egokietan nahasi eta detonazioan atzerapen-denbora jakin bat ematen duen ore bat lortzen da.

3.– Pieza metalikoen fabrikazioa:

● Arantza-fabrikazioa: altzairuzko zumitz bat segidako kolpeen bidez trokelatzean datza funtsean.

● Zorro eta atzeratzaile-euskarrien fabrikazioa: aluminio- edo kobre-alanbrearen estrusio bidez egiten da.

● Operkulu-fabrikazioa: trokel progresibo batekin fabrikatzen dira, letoi-banda erabiliz.

4.– Pilula-fabrikazioa: ore hezeak eta pilulak estaliko dituzten bernizak prestatu ondoren, bainuetan aplikatzen dira, eta azkenik labean sartzen dira, lehortzeko.

5.– Hari-fabrikazioa: kobrezko haria PVC edo polietilenozko geruza batez estaltzea da, estrusio-makina bat erabiliz.

6.– Detonagailu-fabrikazioa: atzeratzaile-euskarriak atzerapen-orearekin kargatzean datza eta, zorroan lehergai hasarazlea eta atzeratzaile-euskarria sartuz detonagailua kargatzean.

7.– Erreleak kargatzea eta muntatzea: atzerapen-orea eta lehergai hasarazlea zorro baten barruan sartzea da.

8.– Kordoi detonatzailearen fabrikazioa: lehengai leherkorra zentrifugatuz eta lehortuz lehortzea da, eta ondoren kordoi detonatzailea bihurritzea eta bilkin plastiko batez estaltzea.

9.– Metxa motelaren fabrikazioa: kordoi detonatzailea fabrikatzeko prozesuaren antzekoa, baina kasu honetan bolbora-nukleo bat inguratuz.

10.– Biderkatzaile-fabrikazioa: lehengaia urtzea da, eta lortutako nahasketa ontzi batzuetan isuri eta giro-tenperaturan hozten uzten da.

Prozesurako erabilitako energia-iturria energia elektrikoa da. Energia elektrikoa Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) instalazio osagarrietan ere erabiltzen da. Gasolioa instalazioetako berogailurako erabiltzen da.

Instalazioan kontsumitutako ura saneamendu-sare nagusikoa da (31.480 m^3/urte kontsumitzen da), eta zerbitzu orokorretan eta haste-sistemen fabrikazioan erabiltzen da.

UEB, Maxam Europe (Galdakaoko fabrika), Maxam Outdoor eta SDP fabrikaren artean 2006ko urriaren 11n hartutako erabakian, hondakin-uren tratamenduko instalazioaren Erantzukizun Partekatuko Akordioaren arabera, instalazio horiek hondakin-urak Maxam Europen (Galdakaoko fabrika) dagoen hondakin-uren tratamendu-instalaziora isurtzen dituzte. Aipatutako akordioaren

arabera, lau enpresek erantzukizun partekatua hartzen dute tratamendu hori gauzatzen denean izan daitekeen edozein gertakari edo istripuren aurrean.

Maxam Europe (Galdakaoko fabrika), UEB, Maxam Outdoors eta SDP enpresen instalazioetan efluente hauek sortzen dira: ekoizte-prozesuetako industria-urak, ur sanitarioak, euri-urak eta hozte-urak.

Efluente horiek Maxam Europe-ko (Galdakaoko fabrika) instalazioetan dagoen eta 17,5 m^3/h tratamendu-ahalmena duen araztegi batera bideratzen dira. Etapa hauek bereizten dira bertan: disolbatzaileak berreskuratzea, homogeneizazio-istila eta 400 m^3-ko edukierako industria-uren ponpaketa, 40 m^3-ko pH-ko neutralizazio automatikoko istila.

Tratatu ondoren, efluenteak isurketa-puntu bakar batetik heltzen dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamenduko sistema integralera.

Instalazioak prozesuari lotutako 16 isurtze-foku sistematiko ditu. Instalazioetan sortutako isurien neurri zuzentzaile gisa, arazketa-sistemak daude, hala nola hezeko bereizgailu zentrifugoak 1, 2, 3, 9 eta 10. fokuetan, hautsa biltzeko iragazkia 8. fokuan, eta ionizagailua 12. eta 13. fokuetan.

Instalazioetan sortutako hondakin nagusiak haste-sistemak fabrikatzeko prozesuari lotutako hauek dira: perklorotilenoa, azidoa duen berun sulfatoa, berun karbonatoa, ikatz aktibo kutsatua, eta oxido metalikoak. Zerbitzu orokorrei lotutako hondakin arriskutsuak ere sortzen dira, hala nola hondar-olioak. Hondakin ez-arriskutsuei dagokienez, papera eta kartoia, aluminio-hondakinak eta kobre-, brontze- eta letoi-hondakinak sortzen dira batik bat.

Proiektuak, besteak beste, 2007ko abuztuko «Referente Document on Best Available Techniques for the Production of Specialty Inorganic Chemicals» erreferentziako agirian adierazitako teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak hartzen ditu barne: eraikinak bereiztea, domino efektua saihesteko; babes elektrikoa, arriskuak saihesteko; isuriak arazteko iragazkiak; energia-eraginkortasunerako eta aurrezteko neurriak, eta biltegiratzeko kontrol-neurriak.

Bigarrena.– Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak Galdakaoko udalerrian lehergaiak fabrikatzeko ustiapenerako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak Estatuko Administrazioko erakunde eskudunek bere garaian emandako baimenen kopia eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

B) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

C) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

C.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

C.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

C.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

C.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Katalogazioa		UTM koordenatuak	
			Taldea	Epigrafea	X	Y
1	48019117-01	1. Ore-fabrikazioa	C	3.6	511885	4786046
2	48019117-02	2. Ore-fabrikazioa	C	3.6	511889	4786033
3	48019117-03	3. Ore-fabrikazioa	C	3.6	511890	4786028
4	48019117-04	Hasarazleen 1. lehorgailua	C	3.6.3	511850	4786116
5	48019117-05	Hasarazleen 2. lehorgailua	C	3.6.3	511853	4786162
6	48019117-06	Hasarazleen 3. lehorgailua	C	3.6.3	511822	4786162
7	48019117-07	Pospolo-fabrikazioa-labea	C	3.12	511626	4786339
8	48019117-08	Proba-laborategia	C	3.6	511691	4786092
9	48019117-09	1. detonagailu-karga	C	3.6	511598	4786092
10	48019117-10	2. detonagailu-karga	C	3.6	511598	4786092
11	48019117-11	Hari-fabrikazioa	C	3.12	511615	4786350
12	48019117-12	1. atzeratzaile-euskarrien estrusioa	C	3.12	511731	4786140
13	48019117-13	2. atzeratzaile-euskarrien estrusioa	C	3.12	511731	4786140
14	48019117-14	Pieza metalikoak koipegabetzea	C	3.12	511731	4786140
15	48019117-15	603 Kordoien estrusio-makina	C	3.12	511607	4785826
16	48019117-16	477 Kordoien estrusio-makina	C	3.12	511540	4785821

C.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
	Beruna	2 mg/Nm^3
2	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
3	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
4	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
	Beruna	2 mg/Nm^3
	NO_x	300 ppm
5	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
	Beruna	2 mg/Nm^3
	NO_x	300 ppm
6	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
	Beruna	2 mg/Nm^3
	NO_x	300 ppm
8	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	Beruna	2 mg/Nm^3
	SO_2	4.300 mg/Nm^3
	NO_x	300 ppm
	CO	500 ppm
9	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
10	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
11	Konposatu Organikoen Guztizkoak (KOG)	100 mg/Nm^3
12	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
13	Guztizko partikulak	10 mg/Nm^3
14	Perkloroetilenoa	20 mgC/Nm^3
15	Konposatu Organikoen Guztizkoak (KOG)	100 mg/Nm^3
16	Konposatu Organikoen Guztizkoak (KOG)	100 mg/Nm^3

Gainazalak perkloroetileno bidez garbitzeko jardueretarako isuri barreiatuen muga-balioa (disolbatzaileen sarrera-portzentajea) % 15ekoa izango da, eta kobre-hariaren estaldurarako eta kordoien estrusiorako, % 15ekoa.

Balio horiek balio hauek dituzte: 273 ºK-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar

daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

c) KOHei (KOG bezala neurtuta) dagokienez, ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak ez baditu gainditzen isurtzeko muga-balioak, eta ordubeteko neurketek ez badituzte isurtzeko muga-balioak 1,5etik gorako faktorean gainditzen.

C.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondar-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute C.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Halaber, neurketa eta irakurketa ofizialak aldez aurretik abisatu gabe egiteko beharrezko gutxienekoak izango dituzte (argindarra eta beste batzuk).

C.1.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

UEB, Maxam Europe (Galdakaoko fabrika), Maxam Outdoor eta SDP fabrikaren artean 2006ko urriaren 11n hartutako erabakian, hondakin-uren tratamenduko instalazioaren Erantzukizun Partekatuko Akordioaren arabera, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresaren instalazioa hondakin-urak Maxam Europen (Galdakaoko fabrika) dagoen hondakin-uren tratamendu-instalaziora isurtzen dituzte, eta horrela, UEB enpresaren isurketa araztegi horretara doa. Nolanahi ere, aipatutako akordioaren arabera, erantzukizun partekatua hartzen da tratamendu hori gauzatzen denean izan daitekeen edozein gertakari edo istripuren aurrean.

C.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako, horiek kudeatu edo balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota

ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Galdakaoko Udalean.

C.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Haste sistemen fabrikazioa».

○ 1. hondakina: «Perkloroetilenoa».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R2//L5//C 40/H6//A750//B6313.

– EHZ: 14 06 02.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.372 kg.

Garbitzean eta koipegabetzean sortzen da pieza metalikoen garbigailuan; olio-hondarrak eta txirbil metalikoa dituen perkloroetilenoa da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoi estankoan biltzen da sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 2. hondakina: «Trapu eta xurgatzaile kutsatuak (solido oliotsuak)».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C51//H5//A750//B6313.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.520 kg.

Prozesuko zenbait puntutan sortzen da, batik bat pieza metalikoen fabrikazioan; olioz edo bestelako kutsagarriz bustitako trapuak, papera eta material xurgatzailea dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «Azidoa duen berun sulfatoa».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S27//C18/23//H6//A750//B6313.

– EHZ: 06 04 05.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.322 kg.

Berun trinitrorresorzinatoa fabrikatzeko erabilitako ama-likidoen dekantazioan sortzen da, azido sulfurikoz neutralizatu ondoren; forma solidoko berun sulfato azidoa da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «Berun karbonatoa».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S27//C18//H6//A750//B6313.

– EHZ: 06 03 13.

– Urtean sortutako kantitatea: 0 kg.

Berun nitruroa (azida) fabrikatzeko erabilitako ama-likidoen dekantazioan sortzen da, azido nitrikoz eta sodio nitritoz neutralizatu ondoren; berun karbonato solidoa da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «Ikatz aktibo kutsatua».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//D15//S20//C23/18//H6//A750//B6313.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.124 kg.

Berun trinitrorresorzinatoaren fabrikazioko dekantagailuko urak iragaztean sortzen da, hondakin-urak UEEren araztegi zentralizatura eramaten dituen barne-sarera isuri aurretik.

Hondakinarentzat identifikatutako metalezko bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «Oxido metalikoak».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S25//C13/18//H6//A750//B6313.

– EHZ: 06 04 05.

– Urtean sortutako kantitatea: 7.702 kg.

Isuriak (hautsak) hezean xurgatu eta araztean sortzen da, instalazioko zenbait fokutan; oxido metalikoak dituzten hautsak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 7. hondakina: «Errebelatzeko likidoen hondakinak».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L16//C24//H5/14//A750//B6313.

– EHZ: 09 01 01.

– Urtean sortutako kantitatea: 446 kg.

Detonagailu-fabrikazioko kalitate-kontroletan (Rx) sortzen da; errebelatze-likido agortuak dira.

Erabilera-puntutik zuzenean erretiratzen da, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

○ 8. hondakina: «Errebelatzeko finkatzailea».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/8.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L16//C10/23//H5/14//A750//B6313.

– EHZ: 09 01 04.

– Urtean sortutako kantitatea: 0 kg.

Detonagailu-fabrikazioko kalitate-kontroletan (Rx) sortzen da; finkatze-likido agortuak dira.

Erabilera-puntutik zuzenean erretiratzen da, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

○ 9. hondakina: «Hondar-tintak».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//L12//C41//H3a/5//A750//B6313.

– EHZ: 08 03 12.

– Urtean sortutako kantitatea: 0 kg.

Produktua markatzean sortzen da; tinta-hondarrak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 10. hondakina: «Tinta-ontziak».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/1/10.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5//A750//B6313.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 0 kg.

Produktua markatzean sortzen da; tinta-hondarrak dituzten ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Hondakin-olioak».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R3//L8//C51//H5/6//A750//B0019.

– EHZ: 13 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 5.236 kg.

Hainbat makinatan olioa birjartzeko lanetan sortzen da; olio hidrauliko erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Fluoreszenteen hondakinak».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6/14//A750//B0019.

– EHZ: 20 01 21.

– Urtean sortutako kantitatea: 80 kg.

Merkurioa duten lanpara erabiliak aldatzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatu den kutxa batean jaso eta berariaz prestatutako leku batean uzten da.

○ 3. hondakina: «Disolbatzaile ez-halogenatuak».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q7//R2//L5//C41//H3b/5//A750//B0019.

– EHZ: 14 06 03.

– Urtean sortutako kantitatea: 945 kg.

Tresna eta lanabesen garbiketan sortzen da; disolbatzaile organiko ez-halogenatua da.

Sortzen den puntuan jasotzen da zuzenean kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 4. hondakina: «Metalezko ontziak (gai arriskutsuez kutsatuak)».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51//H5//A750//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; olioak edo bestelako kutsatzaileak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «Plastikozko ontziak (gai arriskutsuz kutsatutakoak)».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//R15//S36//C18/13//H5//A750//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; plastikozko ontzi hutsak dira, batik bat lehengaiak banatzeko plastikozko poltsak.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

● 3. prozesua: «Hondakin leherkorrak suntsitzea».

○ 1. hondakina: «Beruna duten zepak (erretokiko errautsak)».

– Identifikazioa: B-48801955/4800022361/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//S22//C18//H5/14//A750//B09200.

– EHZ: 06 04 05.

– Urtean sortutako kantitatea: 78 kg.

Hondakin leherkorrak suntsitzeko instalazioan sortzen da hondakin gisa, 2000-06-01eko hondakin leherkorrak suntsitzeko baimenaren arabera. Hondakin leherkorrak erre ondorengo errautsak dira, beruna dutenak.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta hondakin-biltegian uzten da, kudeatzaile baimenduak jaso arte.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta gordetzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira. Enpresak instalazioan sortutako hondakin horiek zuzenean kudeatzen ez baditu, kudeaketa horren agiri bidezko konpromisoa izan beharko da.

e) Hondakin arriskutsuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

f) Aurkeztutako agirien arabera, UEB, Maxam Europe (Galdakaoko fabrika), Maxam Outdoor eta SDP fabrikak biltegi nagusi bakarra dute hondakin arriskutsuak biltegiratzeko. Hondakinak biltegiratzen dituzten enpresa guztiak Maxam Corp., S.A.U. sozietatearen barruan daude, eta filial guztiek aseguru-poliza bera dute. 2006ko irailaren 4ko erantzukizun partekatuko erabakiaren arabera, aipatutako biltegiratzean gertatutako edozein istripu/gertakariren aurrean erantzukizun partekatuko konpromisoa hartzea erabaki dute. Hona hemen dauden neurri zuzentzaileak: lurzoru irazgagaitza, jarraikia drainatzerik gabe, eraikina erabat estalia eta orgatilak sartzeko goragunearekin; hondakin motaren arabera bereizitako bidoiak, su-itzalgailuak eta suteen aurkako sarea kanpoaldean. Hondakinen gaur egungo biltegiratzean edo lehen aipatutako akordioaren inguruan aldaketaren bat badago, berehala jakinarazi beharko zaio Sailburuordetza honi.

g) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

h) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

i) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

j) Material edo produktu leherkorren hondakinetarako, lehergaien araudia onartzen duen otsailaren 16ko 230/1998 Errege Dekretuaren, eta otsailaren 16ko 230/1998 Errege Dekretu bidez onartutako Lehergaien inguruko Araudia aldatzen duen martxoaren 11ko 277/2005 Errege Dekretuaren arabera Ministerioak horiek kudeatzeko ematen duen baimena beharko da.

k) Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

l) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak.

m) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

n) Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

o) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

p) Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

q) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

r) Erregistro-liburu bat izango da hondakin leherkorren instalazioan, dosifikatzeko eta tratatzeko lanak jasotzeko, eta gutxienez datu hauek agerrarazteko:

a.– Kudeatutako hondakinen kopuruak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

b.– Hondakinen aldizkakotasuna eta dosifikazio-maila.

c.– Tratamendu-eragiketak eta kontrolerako parametroak.

d.– Tratamenduaren ondorioz sortutako hondakinen kopurua, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

e.– Horien kudeaketa, helmuga identifikatzeko datak eta datuak.

f.– Hilero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

s) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

t) Aurreko g) eta h) (kudeatzaileak EAEn daudenean), p) eta q) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, erakundeentzako IKS-L03 Sistemaren bertsioa erabilita.

u) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

C.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Urtean zenbatetsitako produkzioa
Kobre-, brontze- eta letoi-hondakinak	17 04 01	Lehergaiak eta bolbora fabrikatzeko prozesu orokorra	4.722 kg
Aluminio-hondakinak	17 04 02	Lehergaiak eta bolbora fabrikatzeko prozesu orokorra	13.838 kg
Zink-hondakinak	17 04 04	Lehergaiak eta bolbora fabrikatzeko prozesu orokorra	900 kg
Paper- eta kartoi-hondakinak	19 12 01	Instalazioko orokorra	38.340 kg
Plastikozko ontziak (geldoak)	15 01 02	Instalazioko orokorra	19 unitate
Burdina- eta altzairu-hondakinak	17 04 05	Lehergaiak eta bolbora fabrikatzeko prozesu orokorra	Noizean behin
Putzu septikoko lohiak	02 07 05	Isurketak araztea	Noizean behin

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek 2 urtez biltegiratu ahal izango dira gehienez.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

C.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak lurzorua babesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

Bereziki, lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota daudenak, hala nola olio erabilien biltegia, kordoi-olioen kubetaren eremua, Edif. 474 gasolioaren andela dagoen eremua eta ur-araztegiko andelak garbitzea, HAen biltegiko itogina konpontzea, eta kubeten mantentze-lanak egitea.

C.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

D) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

D.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak egiten dituen isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48019117-01	1. ore-fabrikazioa	Guztizko partikulak	5 urte (KEB)
			Beruna	
2	48019117-02	2. ore-fabrikazioa	Guztizko partikulak	
3	48019117-03	3. ore-fabrikazioa	Guztizko partikulak	
4	48019117-04	Hasarazleen 1. lehorgailua	Guztizko partikulak	5 urte (KEB)
			Beruna	
			KOG	
			NO_x	
5	48019117-05	Hasarazleen 2. lehorgailua	Guztizko partikulak	
			Beruna	
			KOG	
			NO_x	
6	48019117-06	Hasarazleen 3. lehorgailua	Guztizko partikulak	
			Beruna	
			KOG	
			NO_x	
7	48019117-07	Pospolo–fabrikazioa-labea	KOG	
8	48019117-08	Proba-laborategia	Guztizko partikulak	
			Pb	
			SO_2	
			NO_x	
			CO	
9	48019117-09	1. detonagailu-karga	Guztizko partikulak	5 urte (KEB)
10	48019117-10	2. detonagailu-karga	Guztizko partikulak	
11	48019117-11	Hari-fabrikazioa	KOG	5 urte (KEB)
12	48019117-12	1. atzeratzaile-euskarrien estrusioa	KOG	
			Guztizko partikulak	
13	48019117-13	2. atzeratzaile-euskarrien estrusioa	KOG	
			Guztizko partikulak	
14	48019117-14	Pieza metalikoak koipegabetzea	Perkloroetilenoa	
15	48019117-15	603 Kordoien estrusio-makina	KOG	
16	48019117-16	477 Kordoien estrusio-makina	KOG	

b) Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Baimendutako Kontrol Erakunde (KEB) batek egin behar ditu (gutxienez, ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaio. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurien ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak, jarduera jakin batzuetan disolbatzaileen erabilerak eragindako konposatu organiko hegazkorren isuriak mugatzeko baldintzei buruzkoak, ezarritakoa bete behar du. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu beharko da.

D.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

D.2.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen D.5 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

D.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Lehergai hasarazleen fabrikazioa	t			urtero
	Atzerapen-oreen fabrikazioa	t			urtero
	Produktu kimikoen guztizko ekoizpena (atzerapen-oreak+lehergai hasarazleak)	t			urtero
	Pieza metalikoen fabrikazioa	t			urtero
	Pilula-fabrikazioa	t			urtero
	Konexio-harien fabrikazioa	t			urtero
	Detonagailu elektriko zein ez-elektrikoen fabrikazioa	t			urtero
	Kordoi detonatzailearen fabrikazioa	t			urtero
	Metxa motelaren fabrikazioa	t			urtero
	Biderkatzaileen fabrikazioa	t			urtero
	Haste-sistemen guztizko fabrikazioa	t			

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Materialen kontsumoa	Lehergai hasarazleetarako materialen guztizko kontsumoa	t	Lehergai hasarazleetarako materialen guztizko kontsumoa/Lehergai hasarazleen ekoizpena	t/t	urtero
	Atzerapen-oreetarako materialen guztizko kontsumoa	t	Atzerapen-oreetarako materialen guztizko kontsumoa/Atzerapen-oreen ekoizpena	t/t	urtero
	Koipegabetzeko perkloroetileno-kontsumoa	t	Koipegabetzeko perkloroetileno-kontsumoa/Haste-sistemen guztizko fabrikazioa	t/t	urtero
Energia kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa	KWh	Elektrizitate-kontsumoa/Produktu kimikoen guztizko ekoizpena	Kwh/t	urtero
Isuri atmosferikoak	Partikulen guztizko isuriak (batez bestekoa, max., min., lagin kopurua)/1-6, 8,9,10,12,13. fokuetarako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	Partikulen guztizko isuriak (batez bestekoa, max., min., lagin kopurua)/1-6, 8,9,10,12,13. fokuetarako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	urtero
	Partikulen guztizko isuriak	Kg	Partikulen guztizko isuriak	Kg	urtero
			Partikulen guztizko isuriak/Haste-sistemen guztizko fabrikazioa	Kg/t	
	KOH isuriak (batez bestekoa, max., min., lagin kopurua)/7,11,12,13,15,16. fokuetarako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	KOH isuriak (batez bestekoa, max., min., lagin kopurua)/7,11,12,13,15,16. fokuetarako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	urtero
	KOH isuriak 7. fokuan	Kg	KOH isuriak 7. fokuan/Pospolo-fabrikazioa	Kg/t	urtero
	KOH isuriak 11. fokuan	Kg	KOH isuriak 11. fokuan/Hari-fabrikazioa	Kg/t	urtero
	KOH isuriak 15,16. fokuetan	Kg	KOH isuriak 15,16. fokuetan/Kordoi-fabrikazioa	Kg/t	urtero
			KOH isurien guztizkoak	Kg	urtero
	Berun-isuriak (batez bestekoa, max., min., lagin kopurua)/1,4,5,6. fokuetarako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	Berun-isuriak (batez bestekoa, max., min., lagin kopurua)/1,4,5,6. fokuetarako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	urtero
	Guztizko berun-isuriak	Kg	Guztizko berun-isuriak	Kg	urtero
			Berun-isuriak/Ore eta hasarazleen guztizko fabrikazioa	Kg/t	urtero
	Perkloroetileno-isuriak (batez bestekoa, max, min, lagin kopurua)/ 14. fokurako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	Perkloroetileno-isuriak (batez bestekoa, max, min, lagin kopurua)/ 14. fokurako	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	urtero
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3	urtero
			Ur-kontsumoa/Ore eta hasarazleen guztizko fabrikazioa	m^3 /t ore eta hasarazle	urtero

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak/Maxam	m^3	Industria-isurketak/Maxam	m^3	urtero
	Euri-uren isurketa/Maxam	m^3	Euri-uren isurketa/Maxam	m^3	urtero
Hondakin arriskutsuak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak (araztegiko lohiak…)	%	urtero
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t			urtero
	Glizerina zaharkitua	t	Glizerina zaharkitua/Inpregnazioen eta nitroglizerina eta glikolaren ekoizpena	t	urtero
Hondakin ez arriskutsuak	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	%	urtero
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t			urtero
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kop.	Kopurua / urte	urtero
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/ urtea	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ urtea	urtero

D.4.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, eta ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostena ere bidaliko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

D.5.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

E) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

E.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

E.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (24.6 Epigrafea. «Bestelako produktu kimikoen fabrikazioa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

E.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Oinarrizko Proiektuko «Larrialdi-kasuan jarduteko protokoloa» atalean egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburu horretan kutsadura atmosferikoa prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

c) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Azido nitrikoa, azido sulfurikoa, berun nitruroa, perkloroetilenoa, olioak, koloregaiak, gasolioa, lohiak eta disolbatzaileak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

e) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

g) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.

j) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

k) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

l) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isurketa edo jarioa, isurtzeko muga-balioak gainditzea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

m) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gainditu badira, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.

- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

n) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

G) Urtean behin Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www-eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

H) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

I) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: A) (Bestelako erakundeek emandako baimen eguneratuen kopia), C.1.3.1.d). (Hondakin sanitarioak kudeatzeko kontratua), C.1.3.1.g) eta C.1.3.2.c) (Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak onartzeko agiria) C.1.3.1.i) (Lehergaiak kudeatzeko baimena), C.1.3.1.n) (PCB izatearen adierazpena); C.1.3.1.q) eta C.1.3.2.e). (Sortutako hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak erregistratzeko eredua); C.1.4 (Lurzoruaren egoeraren aurretiazko txostenean lurzorua babesteko adierazitako neurriak) hala badagokio, D.1 (Isuri atmosferikoen kontrola), D.1.1.d) (Konposatu hegazkorren arloan eskatutako agiriak); D.1.1 (Isuri atmosferikoen neurketak erregistratzeko eredua); D.2 (Zarata kontrolatzeko proposamena); D.5 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); E.1 (Geldialdi programatuetan sortutako isuri eta hondakinen zenbatespena); E.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua), E.3.b) (Ikuskapen eta kontrolerako programa); E.3.f) (Biltegiratzeko ziurtagirien egiaztapena), E.3.g) (Larrialdi-egoeretarako materialen zerrenda), E.3.h) (Kubetak husteko protokoloa), E.3.n) (Suteen aurkako babesari buruzko araudia betetzearen egiaztapena).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresak ebazpen honen xede den lehergaiak fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Unión Explosivos-Ensign Bickford Sistemas de Iniciación, S.L. (UEB) enpresari, Galdakaoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.